

# BATERALABS-EN UROLA KOSTAKO ESQUALDEKO 1. SAIOAREN AKTA

Data: 2026ko ekainaren 1a (astelehena)

Lekua: Urola Kostako Udal Elkarte, Zarautz (Gipuzkoa)

## **1. Ekitaldiaren helburua**

Ekitaldiaren helburua **Urola Kostan** herritarren laborategia hasia izan zen, lurraldeko klima-erronkak identifikatzeko eta gizarte-eragileen, herritarren eta erakundeetako ordezkarien ekarpenak jasotzeko.

Saio honek **Klima aldaketari eta horrek eskualdean duen eraginari buruzko informazioa** emateko, Urola Kostako eskualdeko elkarte eta herritarren ordezkarien talde bat sortzeko eta bigarren saioan landuko diren erronkak ateratzeko balio izan zuen. Hori guztia herritar eta politikariek zuzenduta dago: hainbat udalerrri eta eskualde-agentzietako ordezkari publikoekin, auzo-elkarteekin, elkarte sektorialekin eta eskualdeko eragileekin.

## **2. Ekitaldiaren garapena**

### **2.1 Blokeen garapena**

Jarraian, ekitaldiaren blokeak, esku hartzeko benetako denborak eta arduradunak zehazten dira:

#### **1. Ongi etorri instituzionala (5 min)**

- **Arduraduna:** Ion Arozena Urola Kostako Mankomunitatearen Lehendakaria eta Zarautzko zinegotzia, Xabier Txurruka, Zarautzko Alkatea eta José Ignacio Asensio, Gipuzkoako Foru Aldundiko Iraunkortasun diputatua.
- **Deskribapena:** Gipuzkoako Foru Aldundiaren partetik irekiera eta ongi-etorri hitzak bertaratuei. Proiektuak herritarren benetako partaidetzarako foro gisa duen garrantzia nabarmendu zuen, baita klima-aldaketak eguneroko bizitzan duen eragin zuzena eta Urola Kostako eskualdean izan dezakeen eragina ere. Eskualde bakoitzera

egokitutako politiken beharra azpimarratu zuen, oinarri zientifikoarekin eta herritarren eta administrazioen arteko lankidetzarekin.

## **2. Eskualdeko datuak eta informazioa aurkeztea (25 min)**

- **Arduraduna:** Xabier Esteban, Naturklimaren zuzendaria, Dorleta Orúe-Echevarría, Naturklima Behatokiaren koordinatzailea eta Monica Pedreira, Gipuzkoako Foru Aldundiko Iraunkortasun Zuzendaria.
- **Deskribapena:** Klima-aldaketa Urola Kostan duen eraginari buruzko datuak eta informazio zientifikoa azaltzea.

## **3. Parte-hartze prozesuaren aurkezpena (10min)**

- **Arduraduna:** Luzia Salamanca, Osoigoko proiektuen arduraduna.
- **Deskribapena:** Parte-hartze prozesuaren azalpena, hiru saio dituela adieraziz: klima-erronkak identifikatzea, proposamenak egitea eta amaierako proiektua aurkeztea. Saioaren dinamikaren azalpen zehatza: erronkak identifikatzeko erabiliko liratekeen helburu espezifikoak eta dinamikak. Ordezkarri publikoen eta eskualdeko agentzien parte-hartze aktiboaren garrantzia nabarmendu zen, prozesuaren ordezkagarritasuna eta eraginkortasuna bermatzeko eta Bateralabs.eus-en online parte hartzeko aukera bermatzeko.

## **4. Parte-hartze dinamika (40 min)**

Dinamika lan-mahaien bidez garatu zen. Mahai horietan, parte-hartzaileek lurraldeko klima-erronkak identifikatu zituzten, post its -ak erabiliz eta taldean eztabaidatuz. Ondoren, mahai bakoitzak identifikatutako ideia nagusiak partekatu ziren plenarioan. Herritarren laborategiaren saioan, taldeetan lan egin zen Urola Kostako jasangarritasunarekin lotutako lehentasunezko arazoak eta erronkak identifikatzeko, arreta berezia jarriz mugikortasunari, hondakinen kudeaketari, espazio naturalei, energiari eta klima-aldaketarako egokitzeari.

Horretarako, eskualdeko mapa bat landu zen, eta mapa horren gainean tokiko erronkak identifikatu eta kokatu ziren. Jarraian, lan-mahai bakoitzak egindako ekarpen nagusiak jasotzen dira.

## **1. Taldea.**

Lehenengo taldea hondakinen kudeaketarekin lotutako hainbat erronka nabarmenduz hasi zen. Bereziki, plastikozko ontzien erabilerari erreparatu zitzaion, eta adierazi zen herritarren artean sentsibilizazio handiagoa behar dela kontsumo-ohitura jasangarriagoak sustatzeko. Era berean, enpresek ere erantzukizun handiagoa hartu beharko luketela azpimarratu zen, merkaturatzen diren produktuen ontziratzea murriztuz edo alternatiba jasangarriagoak eskainiz. Kontsumitzaileek beren ontziak erabiltzea bezalako praktikak sustatzearen garrantzia ere aipatu zen.


Bestalde, udako garaiari lotutako arazo bat identifikatu zen: bisitari askok zailtasunak izaten dituzte hondakinak behar bezala bereizteko, edukiontzi batzuk erabiltzeko beharrezkoak diren txartelak ez dituztelako. Horrek hondakinen kudeaketa egokia zailtzen duela adierazi zen.

Uholdeen inguruan, taldeak aitortu zuen azken urteetan egindako jardueri esker arazoa neurri handi batean hobetu dela. Hala ere, zenbait tokitan uholdeak gertatzen jarraitzen dutela eta oraindik konpondu gabeko puntu batzuk daudela nabarmendu zen.

Hiri-ingurunearen egokitzapenari dagokionez, bero-uharteen fenomenoari buruzko kezka azaldu zen. Kale eta plaza askotan zuhaitz eta berdegune gutxi daudela adierazi zen, eta hainbat espazio urbanok oraindik hormigoia presentzia handia dutela azpimarratu zen. Adibide gisa, Gipuzkoa kalea eta urbanizazio berrietako zenbait gunek aipatu ziren.

Azkenik, mugikortasunari buruz, ibilgailu pribatuaren erabilera murrizteko neurriak aztertu ziren. Kotxea partekatzeko sistemak sustatzearen beharra nabarmendu zen, batez ere lan-joan-etorrietan. Adierazi zen goizeko orduetan autopistarako sarbideetan auto ugari pilatzen direla, gehienetan pertsona bakarrarekin, eta horrek trafikoa eta emisio kutsatzaileak handitzen dituela. Bizikletaren erabilera oso hedatua dagoela ere aipatu zen, bereziki

Zarautzen, baina zenbait kasutan erabiltzaileen arteko bizikidetza-arazoak sortzen direla azaldu zen.



### Erronken laburpena gaika:

### Mugikortasun jasangarria

- Kotxea partekatzeko ekimenak sustatzea.
- Lan-joan-etorrietan ibilgailu pribatuaren erabilera murriztea.
- Bizikleten eta gainerako erabiltzaileen arteko bizikidetza hobetzea.
- Garraioak sortzen dituen emisioak gutxitzea.

### Ekonomia zirkularra

- Plastikozko ontzien erabilera murriztea.
- Ontziratze jasangarriagoak sustatzea enpresen aldetik.
- Herritarren kontsumo-ohitura arduratsuagoak sustatzea.
- Norberaren ontziak erabiltzea bezalako praktikak bultzatzea.
- Hondakinen bereizketa erraztea bisitarientzat eta udako erabiltzaileentzat.

## **Aldaketa klimatikoa**

- Hiri-beroaren edo bero-uharteen fenomenoari aurre egitea.
- Berdegune eta zuhaitz gehiago txertatzea espazio urbanoetan.
- Hormigoia-aren presentzia handia duten gunek egokitzea.

## **Uholdeak**

- Uholde-arriskua duten gunetan hobekuntza lanekin jarraitzea.
- Oraindik konpondu gabeko puntu kritikoak identifikatzea eta esku hartzea.

## **Gobernantza**

- Herritarren, enpresen eta administrazioen arteko erantzukizun partekatua sustatzea hondakinen kudeaketan.
- Udalerriaren eta bisitarien beharretara egokitutako hondakinak kudeatzeko sistemak aztertzea.

## **2. Taldea**

Hasteko, taldeko bozeramaileak trantsizio energetikoarekin lotutako erronkak azpimarratu zituen. Adierazi zuen zenbait kasutan eraikinen efizientzia energetikoaren eta irizpide estetikoaren artean kontraesanak sortzen direla administrazioaren ikuspegitik. Horren ondorioz, eraikin energetikoki eraginkorrak garatzea zaildu daitekeela azaldu zuen. Era berean, teilatuen potentziala aprobeztatzearen garrantzia nabarmendu zen, bereziki energia berriztagarrien ekoizpenerako, eta eskualdeak arlo horretan erronka handia duela adierazi zen.


Mugikortasunari dagokionez, garraio publikoaren sarea hobetzea lehentasunezko erronkatzat jo zen. Taldearen ustez, mugikortasun indibidualarekiko mendekotasuna murriztu nahi bada, ezinbestekoa da garraio publiko erakargarriagoa, eraginkorragoa eta irisgarriagoa eskaintzea.

Hondakinen kudeaketaren inguruan, gaur egungo egoerari aurre egiteko politika sendoagoak eta ausartagoak behar direla azpimarratu zen.

Uholdeen eta klima-aldaketaren ondorioen harira, itsasoaren mailaren eta uraren temperaturaren igoera aipatu ziren etorkizuneko arrisku nagusien artean. Testuinguru horretan, arrisku horiei aurre egiteko hezkuntza eta sentsibilizazioa funtsezko tresnak izango direla adierazi zen, bai egungo herritarrentzat bai etorkizuneko belaunaldientzat. Taldearen iritziz, arriskuen ezagutza eta prestakuntza izango dira egokitzapenerako bide eraginkorrenetako batzuk.

Kostaldearen etorkizunari buruz ere hausnartu zen, eta itsasoaren lehen lerroan kokatutako eraikinen egoerari buruzko kezka azaldu zen. Epe luzera, eraikin horien kokapena berrikustea eta, ahal den neurrian, progresiboki atzeratzea aztertu beharreko erronka gisa planteatu zen.

Azkenik, hiri-beroaren fenomenoari eta lurraldearen kudeaketari lotuta, basogintza-ereduaren inguruko eztabaida egin zen. Urola Kostan basogintza intentsiboaren eta estentsiboaren arteko oreka bilatzearen garrantzia nabarmendu zen, baita baso autoktonoen kontserbazioa eta sustapena ere. Hiriguneei dagokienez, herriak berdetzeko beharra azpimarratu zen, zuhaitz handiak, tamaina ertaineko zuhaitzak eta landaredia txertatuz, klima-aldaketaren ondorioei aurre egiteko eta bizi-kalitatea hobetzeko.



## **Erronken laburpena gaika:**

### **Mugikortasun jasangarria**

- Garraio publikoaren sarea hobetzea.
- Mugikortasun indibidualaren mendekotasuna murriztea.
- Garraio publiko erakargarriagoa eta eraginkorragoa sustatzea.

### **Ekonomia Zirkularra**

- Hondakinen kudeaketarako politika sendoagoak garatzea.

### **Energia**

- Trantsizio energetikoa erraztea eraikinen diseinuan eta araudian.
- Efizientzia energetikoaren eta irizpide estetikoaren arteko oreka bilatzea.
- Teilatuen erabilera sustatzea energia berriztagarrien ekoizpenerako.

### **Aldaketa klimatikoa**

- Itsasoaren mailaren igoerari eta uraren tenperaturaren hazkundeari aurre egitea.
- Klima-aldaketaren ondorioetara egokitzeko neurriak garatzea.
- Kostaldeko eremu kalteberenen etorkizuna planifikatzea.

### **Hezkuntza / Kultura**

- Klima-arriskuei buruzko hezkuntza eta sentsibilizazioa indartzea.
- Egungo eta etorkizuneko belaunaldiak prestatzea klima-aldaketaren ondorioei aurre egiteko.

### **Uholdeak**

- Uholde-arriskuei buruzko ezagutza eta prebentzioa sustatzea.
- Herritarren prestakuntza indartzea muturreko fenomenoaren aurrean.

### **Lehen sektorea**

- Basogintza intentsiboaren eta estentsiboaren arteko oreka bilatzea.
- Baso autoktonoen kontserbazioa eta sustapena.

## Hiri berroneratzea

- Hiri-inguruneak berdetzea.
- Zuhaitz eta landaredi gehiago txertatzea kale eta espazio publikoetan.
- Hiri-beroaren efektua murrizteko neurriak sustatzea.
- Kostaldeko lehen lerroko eraikinen kokapenari buruzko epe luzerako hausnarketa eta plangintza sustatzea.

### 3. Taldea

Hirugarren taldeko bozeramaileak energia-trantsizioaren inguruko hainbat kezka azaldu zituen hitzartzea hasteko. Bereziki, Zarautzen energia berriztagarrien presentzia eta erabilera oraindik mugatua dela adierazi zen, eta komunitate energetikoen garapena eskasa dela nabarmendu zen. Taldeak hausnarketa egin zuen eguneroko energia-kontsumoaren jatorriari buruz, eta energia berriztagarrien aldeko trantsizioan urrats gehiago eman behar direla ondorioztatu zuen.

Mugikortasun jasangarriari dagokionez, bidegorri sarearen gabezia izan zen gehien errepikatu zen gaia. Bereziki, Zarautz, Getaria eta inguruko udalerrien arteko loturak hobetzeko beharra azpimarratu zen. Parte-hartzaileen ustez, herritarren artean bizikletaren erabilera handia da, eta are gehiago zabalduko litzateke herriz herriko joan-etorriak egiteko azpiegitura seguru eta jarraituak egongo balira. Malekoiko bidegorria eta udalerriko beste zenbait tarte ere aipatu ziren, gaur egungo sarearen mugak erakusten dituzten adibide gisa.

Halaber, emisio gutxiko edo emisio nuluko eremuak sortzeko aukera ere aipatu zen. Hala ere, taldeko zenbait kidek uste zuten lehentasuna bizikletaren erabilera erraztea eta bizikletentzako azpiegitura eta aparkaleku egokiak eskaintzea izan beharko litzatekeela.

Hondakinen kudeaketari buruz, hainbat edukiontziren funtzionamenduarekin lotutako arazoak aipatu ziren. Era berean, kontsumo-ohiturei buruzko hausnarketa egin zen, eta gaur egun sortzen den ontzi kopuru handiak kezka eragiten duela adierazi zen. Janari-dendetan sortzen diren hondakinak ere aipatu ziren. Taldeak uste zuen herritarrek erantzukizun partekatua dutela gai honetan, eta birziklapena sustatzeko pizgarri-sistemak aztertzea interesgarria izan zitekeela, ontziak itzultzeagatik edo behar bezala kudeatzeagatik onurak eskaintzen dituzten mekanismoen bidez.



- Emisio gutxiko edo emisio nuluko eremuen egokitasuna aztertzea.

### **Ekonomia Zirkularra**

- Hondakinen sorrera murriztea, bereziki ontzien arloan.
- Janari-dendetan sortzen diren hondakinen kudeaketa hobetzea.
- Birziklapena sustatzeko pizgarri-sistemak aztertzea.
- Edukiontzien funtzionamendua eta erabilgarritasuna hobetzea.
- Kontsumo-ohitura arduratsuagoak sustatzea.

### **Energia**

- Energia berriztagarrien erabilera handitzea.
- Komunitate energetikoak sustatzea eta garatzea.
- Energia-kontsumoaren jatorriari buruzko kontzientziazioa handitzea.

### **Hezkuntza / Kultura**

- Hondakinen sorrera eta kontsumo-ohiturei buruzko sentsibilizazioa indartzea.
- Uholde-arriskuen aurrean herritarren informazioa eta prestakuntza hobetzea.

### **Uholdeak**

- Uholde bat gertatuz gero hartu beharreko neurriei buruzko informazioa zabaltzea.
- Larrialdi egoeretan herritarren prestakuntza eta komunikazioa indartzea.

### **Aldaketa Klimatikoa**

- Hiri-beroaren efektua murrizteko neurriak sustatzea.
- Tenperatura altuen aurrean egokitzapen neurriak garatzea.

### **Hiri berroneratzea**

- Getariako portu inguruan eta antzeko eremuetan berdegune gehiago sortzea.
- Kale eta espazio publikoetan itzal-gune gehiago sortzea.
- Hiri-inguruneetan landarediaren presentzia handitzea.
- Hormigoia nagusitasuna duten gunek berroneratzea klima-egokitzapenaren ikuspegitik.

#### 4. taldea.

Laugarren taldeak trantsizio energetikoaren inguruan hausnartzen hasi zen, eta energia-iturri alternatiboak indartzeko beharra azpimarratu zuen. Era berean, ekonomia zirkularraren aldeko apustua sendotzearen garrantzia nabarmendu zen. Parte-hartzaileek adierazi zuten ezinbestekoa dela kontsumitzen diren produktu eta baliabideen jatorria ezagutzea eta kontsumo-ohiturek dituzten ondorio sozial, ekonomiko eta ingurumenekoak kontuan hartzea.

Mugikortasunari dagokionez, garraio publikoaren eskaintza hobetzeko hainbat proposamen egin ziren. Trenen maiztasuna handitzeko beharra aipatu zen, nahiz eta arlo horretan dagoeneko martxan dauden proiektuak daudela adierazi zen. Halaber, asteburuetan garraio publikoaren maiztasunak handitzearen alde agertu ziren, herritarren erabilera sustatzeko. Getariaren kasuan, trenik ez dagoela gogorarazi zen, eta autobus zerbitzuaren maiztasuna handitzea beharrezkotzat jo zen. Turismo-garaian sortzen diren mugikortasun arazoak ere aipatu ziren, bereziki geltokien eta geralekuen gaitasun mugatuari lotuta, eta egoera hori hobeto antolatzeke neurriak eskatu ziren.

Bizikleta bidezko mugikortasunari dagokionez, Zarauzko bidegorri sarea hobetzeko, luzatzeko eta zabaltzeko beharra nabarmendu zen, erabilera gero eta handiagoa dela ikusita.

Azpiegituren eta klima-aldaketaren arteko loturari erreparatuz, NA-634 errepidearen egoera aipatu zen. Taldearen arabera, kostaldeko higadurak eta itsasoaren eraginak arriskuan jar dezakete etorkizunean azpiegitura hori, eta egoeraren jarraipen eta plangintza egokia egitea beharrezkoa izango da.


Itsasoaren mailaren igoerari buruzko kezka ere azaldu zen. Bereziki, Zarautzen hondartzaren inguruan kokatutako etxebizitzaren kalteberatasuna aipatu zen, eta etorkizunean kostaldeko eremu horien kudeaketa nola egin behar den aztertzeke beharra planteatu zen. Beste herrialde batzuetan garatutako egokitzapen-neurriak erreferentzia gisa aipatu ziren, nahiz eta tokiko errealitatera egokitutako konponbideak bilatu beharko direla adierazi zen.

Hiri-beroaren fenomenoari lotuta, eraikinen isolamendu termikoa hobetzearen beharra izan zen eztabaidagai nagusietako bat. Bereziki, eraikin publikoetan —hala nola ospitaleetan

eta ikastetxeetan— neurriak lehenestea proposatu zen, baina baita lantokietan eta etxebizitzetan ere. Parte-hartzaileen ustez, tenperatura altuek gero eta eragin handiagoa izango dute herritarren osasunean eta lan-baldintzetan, eta horri aurre egiteko prestatu beharra dago.

Horrez gain, sentsibilizazio-kanpainak indartzea eta babesgune edo aterpe klimatikoak sortzea proposatu zen. Herritarrek espazio horien kokapena ezagutzeko informazio-sistemak garatzea ere beharrezkotzat jo zen.

Azkenik, hondakinen kudeaketaren inguruan, gaur egungo sistemak berrikusteko eta plan berri bat diseinatzeko beharra planteatu zen. Taldearen iritziz, sentsibilizazioak garrantzia duen arren, zenbait kasutan neurri zorrotzagoak edo derrigorrezko mekanismoak ere aztertu beharko lirateke hondakinen sorrera eta kudeaketa hobetzeko.



### Erronken laburpena gaika:

### Mugikortasun jasangarria

- Trenen maiztasuna handitzea.
- Asteburuetan garraio publikoaren eskaintza indartzea.

- Getariako autobus zerbitzuaren maiztasuna handitzea.
- Turismo-garaiko mugikortasunaren kudeaketa hobetzea.
- Zarauzko bidegorri sarea luzatu, hobetu eta zabaltzea.

### **Ekonomia Zirkularra**

- Ekonomia zirkularra sustatzea.
- Kontsumo-ohituren inpaktua eta produktuen jatorria kontuan hartzea.
- Hondakinen kudeaketarako plan berri bat diseinatzea.
- Hondakinen sorrera murrizteko neurri eraginkorragoak ezartzea.

### **Energia**

- Energia-iturri alternatiboak eta berriztagarriak sustatzea.
- Energia-kontsumo arduratsua bultzatzea.

### **Osasuna**

- Temperatura altuek osasunean eta lan-baldintzetan duten eragina murriztea.
- Bero-boladen aurrean herritarren babesa indartzea.

### **Aldaketa Klimatikoa**

- Itsasoaren mailaren igoeraren ondorioetara egokitzea.
- Kostaldeko higaduraren eta klima-arriskuen aurrean plangintza egitea.
- Eraikinen egokitzapena sustatzea tenperatura altuen aurrean.

### **Hezkuntza / Kultura**

- Klima-aldaketaren ondorioei buruzko sentsibilizazio-kanpainak indartzea.
- Herritarrei babes-neurrien eta baliabideen berri ematea.

### **Hiri berroneratzea**

- Eraikin publikoen isolamendu termikoa hobetzea.
- Etxebizitzen eta lantokien egokitzapen klimatikoa sustatzea.
- Aterpe klimatikoak edo babesguneak sortzea eta identifikatzea.

### **Gobernantza**

- Klima-arriskuei aurre egiteko epe luzerako plangintza garatzea.
- Kostaldeko eremuen etorkizuneko kudeaketari buruzko hausnarketa eta erabakiak sustatzea.

### **Beste batzuk**

- NA-634 errepidearen kalteberatasuna aztertzea kostaldeko higaduraren eta itsasoaren eraginaren aurrean.


## **5. taldea**

Lehendabizi, taldeak energia-trantsizioaren inguruko hausnarketa egin zuen, eta Aiako esperientzia partekatu zen adibide gisa. Azaldu zen udalerrian komunitate edo kooperatiba energetiko batek arrakastaz funtzionatzen duela, eta herritarren aldetik gero eta interes handiagoa dagoela horrelako ekimenetan parte hartzeko. Horren harira, Zarautzen ere komunitate energetikoak sustatzeko beharra planteatu zen, energia berriztagarrien ezarpena indartzeko tresna gisa. Halaber, energia-trantsizioa landa-garapenarekin lotzeko aukera azpimarratu zen. Dena den, parte-hartzaileek nabarmendu zuten neurri horiek beharrezkoak izan arren, klima- eta energia-erronkaren zati bati baino ez diotela erantzuten. Adibide gisa, adimen artifizialaren garapenarekin lotutako energia-eskaera gero eta handiagoa aipatu zen.

Hondakinen kudeaketari dagokionez, taldeak eztabaida birziklapenetik harago eraman zuen. Parte-hartzaileen ustez, arazoaren muina egungo kontsumo-ereduan dago, eta ez soilik sortutako hondakinen kudeaketan. Produktu askoren gehiegizko ontziratzea kritikatu zen, bereziki plastikoaren erabilera masiboa. Aldi berean, eskualdeko herri txikiek tokiko kontsumoa sustatzeko eta kontsumo jasangarriago baterantz aurrera egiteko aukera handiak dituztela adierazi zen.

Mugikortasunaren arloan, Zarautzen martxan dauden ekimenak eta planak aipatu ziren, baina aldi berean azpimarratu zen landa-eremuetan garraio publikoaren eskaintza mugatuagoa dela. Bereziki, Aiako auzo eta eremuetan dauden mugikortasun zailtasunak nabarmendu ziren. Bizikletaren erabilera gero eta handiagoa dela ere aipatu zen, baina azpiegiturak hobetzeko beharra identifikatu zen erabiltzaile gehiagoren segurtasuna eta erosotasuna bermatzeko.

Azkenik, hiri-beroaren fenomenoari lotuta, Zarautzen arnagune edo berdegune gehiago behar direla adierazi zen. Taldearen ustez, landaredia eta espazio berdeak handitzea funtsezkoa izango da tenperatura altuen eragina murrizteko eta herritarren bizi-kalitatea hobetzeko.



### Erronken laburpena gaika:

#### Mugikortasun jasangarria

- Landa-eremuetako garraio publikoaren eskaintza hobetzea.
- Aia eta antzeko eremuetako mugikortasun-beharrei erantzutea.
- Bizikletaren erabilera sustatzeko azpiegiturak hobetzea.
- Herri eta auzoen arteko lotura jasangarriak indartzea.

#### Ekonomia Zirkularra

- Kontsumo-ereduaren inguruko hausnarketa sustatzea.
- Produktuen gehiegizko ontziratzea murriztea.
- Plastikoaren erabilera gutxitzea.
- Tokiko kontsumoa eta hurbileko merkataritza sustatzea.

## **Energia**

- Komunitate edo kooperatiba energetikoak sustatzea.
- Energia berriztagarrien ezarpena handitzea.
- Energia-trantsizioa landa-garapenarekin lotzea.
- Energia-eskaeraren hazkunderari buruzko hausnarketa sustatzea.

## **Aldaketa Klimatika**

- Hiri-beroaren ondorioei aurre egiteko neurriak garatzea.
- Klima-aldaketaren aurrean egokitzapena indartzea.

## **Hiri berroneratzea**

- Zarautzen berdegune eta arnagune gehiago sortzea.
- Landarediaren presentzia handitzea espazio urbanoetan.
- Tenperatura altuak arintzeko hiri-diseinuko neurriak sustatzea.

## **Gobernantza**

- Energia-komunitateen sorrera eta kudeaketa sustatzeko lankidetzak publiko-komunitarioak indartzea.
- Tokiko garapenaren eta jasangarritasunaren arteko loturak sustatzea.

## **6. Taldea.**

Mahi honek trantsizio energetikoaren inguruko hainbat erronka identifikatuz hasi zen. Bereziki, eskualdean komunitate energetiko gehiago garatzeko beharra azpimarratu zen. Parte-hartzaileen ustez, udalerrri bakoitzean urte osorako eta herritar guztiei zuzendutako energia berriztagarrien ekoizpen eta kontsumo ereduak sustatu beharko lirateke. Era berean, familiei eta bizilagun-komunitateei laguntza eta erraztasun handiagoak eskaintzearen garrantzia nabarmendu zen, energia-eredu jasangarriagoetara igarotzeko.


Mugikortasunaren arloan, garraioaren elektrifikazioa sustatzeko beharra aipatu zen, bai udalerrri mailan bai Gipuzkoa osoan. Halaber, garraio publikoaren maiztasunak handitzea eskatu zen, bereziki landa-eremuetan. Aia berriz ere irisgarritasun eta konektibitate arazoak dituen eremu gisa identifikatu zen. Taldeak adierazi zuen auto pribatuaren erabilera

gehiegizkoa dela eta, etorkizunera begira, herriguneetan haren presentzia murriztu eta garraio publikoa nahiz bizikleta bidezko mugikortasuna lehenetsi beharko liratekeela.

Hondakinen kudeaketari dagokionez, eskualdeko datuak oro har positibotzat jo ziren arren, bisitarien eta udako erabiltzaileen eragina nabarmendu zen. Parte-hartzaileen arabera, kanpotik etortzen diren pertsona askok ez dituzte hondakinak behar bezala kudeatzeko tresnak edo baliabideak ezagutzen, eta horren ondorioak bereziki hondartzetan eta jende pilaketa handiko guneetan antzematen dira.

Uholdeen eta kostaldearen babesaren inguruan ere hainbat ekarpen egin ziren. Dunen kontserbazioa eta indartzea lehentasunezko neurri gisa aipatu zen, kostaldearen babes naturala bermatzeko. Horrez gain, Oria eta Urola ibaien inguruko uholde-arriskua ere azpimarratu zen, bereziki prezipitazio handiko garaian. Taldearen iritziz, arrisku horiek murrizteko neurri gehiago hartu beharko lirateke.

Azkenik, bero-boladen eraginari lotuta, herriguneetan berdegune gehiago sortzeko beharra nabarmendu zen. Parte-hartzaileek adierazi zuten espazio publikoak klima-aldaketaren ondorioetara egokitu behar direla, eta horretarako zuhaitzak, itzal-guneak eta natur elementuak txertatzea funtsezkoa izango dela.



**Erronken lburpena gaika:**

## **Mugikortasun jasangarria**

- Garraio publikoaren maiztasuna handitzea.
- Aia bezalako landa-eremuen konektibitatea hobetzea.
- Bizikleta bidezko mugikortasuna sustatzea.
- Auto pribatuaren erabilera murriztea herriguneetan.
- Garraio-sistema jasangarriagoak lehenestea.

## **Ekonomia Zirkularra**

- Bisitarien artean hondakinen kudeaketa egokia sustatzea.
- Hondakinak bereizteko eta biltzeko sistemak erabiltzaile guztientzat irisgarriago egitea.

## **Energia**

- Komunitate energetiko berriak sustatzea.
- Energia berriztagarrien tokiko ekoizpena handitzea.
- Familiei eta bizilagun-komunitateei trantsizio energetikoa erraztea.

## **Aldaketa Klimatikoa**

- Bero-boladen eraginari aurre egiteko neurriak garatzea.
- Klima-aldaketaren ondorioetara egokitutako herriguneak sustatzea.

## **Uholdeak**

- Dunak babestu eta indartzea kostaldeko babes-neurri gisa.
- Oria eta Urola ibaien inguruko uholde-arriskua murriztea.
- Prezipitazio handien ondoriozko kalteak prebenitzeko neurriak indartzea.

## **Hiri berroneratzea**

- Herriguneak berdetzea.
- Berdegune eta itzal-gune gehiago sortzea.
- Espazio publikoak klima-egokitzapenaren ikuspegitik eraldatzea.

## **Gobernantza**

- Trantsizio energetikorako laguntza eta erraztasun publikoak sustatzea.
- Energia berriztagarrien inguruko tokiko plangintza eta lankidetzaren indartzea.

### **3. Itxiera**

- **Arduraduna:** José Ignacio Asensio, Gipuzkoako Foru Aldundiko Iraunkortasun diputatua.

Saioa amaitzeko, parte-hartzaileei eskerrak eman zitzaizkien eta hurrengo saioetan identifikatutako erronkei erantzuteko proposamenak lantzen jarraitzeko gonbita egin zitzaien.